

KUOTA, KUOTA!

Azken asteotan ikusi dut telebistan *Euskaltel* telefono konpainia autonomikoaren iragarki berria. Eta benetan harritu nau. Gogoan izango duzue. Ezkaratze batean gertatzen da. Asiar batzuk ageri dira arte martzialen bateko erakustaldiari dagozkiokeen keinu, jauzi eta jantzitan «kuota, kuota!» oihukatuz. Berrogei urte inguruko emakume dotoreak (*bertako* emakume arrunta bera) sekulako belarrondokoa joaz erantzuten dio gizarajoari, beste esplikaziorik gabe.

Nik dakidala, ez du inork salaketa publikorik egin. Eta horrek gehiago harritzen nau. Etorrin asiarren elkarreak iragarkiaren eduki xenofobo argia salatzea gauzarik normalena litzateke, halako elkarerik balego. Elkarrizketaren ukapena eta indarkeriaren apologia ikusten dut nik hitzik gabeko belarrondoko bortitzean; irakasle, politikari, epaile eta elkarre bakezale profesionalek, ordea, ez dute nonbait halakorik ikusi. Emakumeen eskubideen aldeko erakunde publiko nahiz herritarren ahotsik ere ez dut entzun. Emakumearen irudiaren erabilera ere ez da salagarria, sobrare, tratatu txar emaile, eta ez hartzaile, ageri den heinean behintzat.

Zuzentasun politikoaren gaitzak jota nagoela izango da kontua. Edo ez naizela publizitate-iragarkien benetako mezu subliminala (ate azpikoa, alegia) ulertzeko gai. Bururatu zait, ez pentsa, mezu ezkuturen bat, urte hasierako testuinguruan aise transmititzeko modukoa: Montoro ministro *mantxurrianoari* Zenarruzabeitia *geure* lehendakariorde irmoak «no kupo!» esaten dio zaplaztako sinbolikoa joaz EAEko zergapekoen duintasunaren defentsan. Baliteke. Ez zait, hala ere, hipotesirik sinesgarriena iruditzen, telefono konpainia autonomikoaren lehendakari zein den kontuan hartuta. Ardantza errazago imajinatzen dut Dalai Lamaz jantzita «kupo, kupo!» esanez, samuraiz jantzita kolpeak ematen eta «no kupo!» esanez baino. Laranja kolorearen eragina izango da, akaso.